



**NAHI DUGUN ESKOLA**

Txostenaren puntuak:

1. Sarrera
2. XVIII. Topaketen egitaraua
3. Mahaingurua partidu politikoen ordezkariekin
4. Taldetan landutako gaiak:
  - Autonomia
  - Azpiegitura
5. Jaume Carbonell jaunaren hitzaldia
6. Ebaluazioa
7. Eranskinak:
  - Gaiak tratatzeko erabilitako dokumentuak
  - Autonomia gaiaren emaitak tauletan
  - Komunikabideei bidalitako prentsa oharrak
  - Komunikabideetan izandako oihartzuna

## 1. SARRERA

SAREAN Elkarteak martxoaren 9an eta maiatzaren 20 eta 21ean, XVIII. Topaketak burutu zituen. Txosten honetan jardunaldi horietan egindako lana bildu nahi dugu.

Lehen ekitaldia partidu politikoen ordezkariekin egindako mahaingurua zen eta hauteskundeen datak baldintzatuta, martxoan egin zen. Mahaingurua Eibarko Portalea kultur etxean izan zen eta bertan partidu politikoen ordekariek hezkuntza arloan duten proposamena azaltzeko aukera izan zuten.

Bigarren ekitaldian, SAREANen ohi dugun bezala, gai baten inguruko talde lana egin zen. Hau Donostiako Miramar Jauregian egin zen eta aldi honetan aukeratu zen gaia, NAHI DUGUN ESKOLA izan zen. Jakin badakigu oso gai konplexua dela eta Topaketa bat ez dela nahikoa izango egin beharreko hausnarketa amaitzeko, beraz, hurrengo Topaketetan jarraitzeko asmoa daukagu.

Gaia aukeratzeko ohiturari jarraituz, ikastetxeetara gai posibleen zerrenda bidali zen lehentasunak markatzeko eskaerarekin; gaia erantzunen arabera jarri zen, hau da NAHI DUGUN ESKOLA izenburupean, Autonomia eta Azpiegitura landu ziren aldi honetan. Horretarako bi lan talde osatu ziren eta bakoitza erabaki zuen lana bideratzeko erabiliko zuen prozedura, dokumentuak eta datuak jasotzeko tresnak.

Gaiak lantzeko metodologia, Topaketa guztietan bezala, aktiboa izan zen, lau talde txiki osatu ziren, bi taldek *Autonomia* landu zuten eta beste biek *Azpiegitura*. Talde guztien lana elkarjatzeko saioan aurkeztu zen.

XVIII. Topaketetara amaiera emateko "*Cuadernos de Pedagogía*" aldizkariaren zuzendaria den Jaume Carbonell jaunak "Eskola publikoaren beharra eta etorkizuna" izenburua zuen hitzaldia eman zuen.



## XVIII. Topaketak



### Miramar Jauregia - Donostia

2005eko maiatzaren 20 eta 21ean

#### Egitaraua:

Martxoaren 9an partidu politikoek ordezkariekin burutu zen mahaingurua XVIII. Topaketaren barruan programatutako ekintza izan zen, hauteskunderen dataren arabera egokituta.

#### *Maiatzaren 20 / ostirala*

09:00 - 09:30 ▶ Karpeten banaketa

09:30 - 10:00 ▶ Jardueren aurkezpena.

10:00 - 11:30 ▶ Talde txikiak.

Gaia: **"Nahi dugun eskola mota"**

- **Autonomia**
- **Azpiegitura**

11:30 - 12:00 ▶ Kafea

12:00 - 13:30 ▶ Talde txikiak

13:30 - 14:00 ▶ Atsedena - argazkia

14:00 - 16:00 ▶ Bazkaria

16:00 - 16:30 ▶ Zuzendaritzarako gidaren aurkezpena

16:30 - 17:30 ▶ Talde handia: talde txikien elkarjartzea

17:30 - 19:00 ▶ Hitzaldia: **"Eskola Publikoaren beharra eta etorkizuna"**

Hizlaria: *Cuadernos de Pedagogia* aldizkariaren zuzendaria den Jaume Carbonell jauna.

#### *Maiatzaren 21 / larunbata*

11:30 - 13:00 ▶ Ondorioak bildu eta balorazioa egin.

### 3. MAHAINGURUA

Martxoaren 9an Eibarko Portalea kultur etxean burutu zen ekitaldi hau eta horren helburua zera zen, partidu politikoek hezkuntza arloan daukaten programa ezagutzea eta ahal zen neurrian geneuzkan zalantzak argitzea.

Partidu politiko guztiei bidali zitzaien gonbitea eta ondokoek ordezkaria bidali zuten:

- EAJ-PNV > Mikel Agirregabiria
- EA > Martin Aranburu
- Batasuna > Eli Zubiaga
- Aralar > Xabier Sarasua

Ekitaldiaren moderatzailea Iker Estala kazetaria izan zen.



## **Eli Zubiaga - BATASUNA**

Planteatzen dituzten lan ildoak:

- Hezkuntza Sistema propioaren bidean daude eta ikusten tuten lehen ardatza euskalduntasuna izango litzateke. Urrats handiak eman dira.
- Euskeraz ikasteko eskubidea Euskal Herri osoan.
- Ikastetxe euskaldunak Hezkuntza Sistemaren zutabea dira eta babeska eskatzen dute.
- Ikastetxeetako eguneroko jarduna, euskalduntzea, ikasle euskaldun garatuak bermatzea.
- Hizkuntz ereduen gaia errotik birplanteatu . Sistema bat planteatu behar da, Kataluñakoa agian? Argüi dago Heuskal Herri osoa hartuta oraingo erreduek ez dutela euskalduntzen.
- Eleaniztasuna indartu, daukan balio interkulturala azpimarratu. Etorkizunera begira 3 hizkuntzak jakin beharko ditugula argi dago eta bide horretatik urratsak ematea da asmoa.
- Euskalkiak ere zaindu.
- Euskal curriculumaren garapena bultzatzea; urratsak eman dira eta orain guztion ekarpena eskatuko da.
- Ikasleak Hezkuntza Sistemaren ardatza direla azpimarratzea. Eskola denon artean arautu behar da, pedagogia aktiboak bultzatzea eta ikasleen eskubideak errespetatzea (greba eskubidea adibidez)
- Kalitatea. Eskola ez da eredu neoliberaleraz planteatu behar; proiektua definitu, edukiak zehaztu etb. Baina beti pertsonak hezi behar direla kontuan hartuz, eztabaidatzeko kapazak diren pertsonak, bizitzen dakitenak.
- Eskolak autonomia izan behar du bere Hezkuntza Proiektua planteatzeako.

## **Xabier Sarasua - ARALAR**

Programan dituzten puntu nagusiak:

- Hezkuntza Sistema propioa beharrezkoa ikusten dute baloreen heziketan oinarrituta.
- "Euskal Herria bere eskola" mugimenduariekin bat egiten dute, curriculum, Lanbide Heziketa eta Unibertsitatearen euskalduntzea etab.
- Hezkuntza sistema zabala, orekatua mapa eskolarraren azterketaren ondorioa.
- Kalitatezko hezkuntza bultzatzea.
- Publiko/kontzertatuen papera argitu beharko da eta hezkuntza itun bat lortzea izan beharko du helburu.
- Ikastetxeetako langileen egonkortasuna aztertzea
- Herri txikietan ikastetxeak.
- Zuzendaritza Taldeak direla eta arazoak daude. Autaketa batez ere ikastetxeen eskuetan baina H Sailak ikastetxeak noraezean utzi barik.
- Irakasleen etengabeko formakuntza eta irakaslegoaren gaztetzea bultzatu.
- Etorkinen kasua ere tratatu, hezitze baliabideak etab.
- Curriculum
- Lehen Hezkuntzatik 2. Hezkuntzara dagoen zuloa konpondu; 2. Hezkuntza edukinetan oinarritzen da, hau aldatu behar da, pertsona osoa hazitzeko.
- 0-3 zikloa bereziki alderdi hezitzailea indartu. Publikoa, kalitatezkoa, langileen lan baldintzak zehaztuta. Adin honetako mapa ere landu behar da.
- Irakaskuntzan lan egiten dutenen balorazioaz hausnartu.

- Ikastetxeen autonomia. Ikastetxe publikoetan pertsonalgoaren arloan hutsune handia dago
- Kudeatze aktiboa bultzatu. Klaustroak pedagogian eta gurasoak beren arlotan
- Euskeraren normalkuntza. Eredu linguistikoen birplanteaketa.
- Hezkuntza Sistemaren funtsa ikasleei bizitzeko tresnak ematea da, agian korrienteren kontra, Hezkuntza eredu propioa, euskalduna, demokratikoa, bertan errotuta eta plurala.

### **Martin Aramburu - EA**

Momentuzko egoera ona bezala jotzen dute. 0-3 zikloaren inplantazioa martxan jarri dute, Unibertsitatearen inguruan baikortasuna agertzen dute eta dauden hutsuneak zuzentzeko bidean egon gaitzke. Lege berriaren oinarria jarriko da nahi dugun Unibertsitatea edukitzeko. Lanbide Hezkuntzan ondo gaude baina euskaldundu behar da.

Etorkizunerako erronkak:

- 0-3 haurreskola eredu baliogarria da baina badu zer hobetu. Eskeintza handitzen saiatu, langileen egoera, kuoten inguruko eztabaida. Gaur egun herri honek dohakotasuna ezin du asumitu, baina kuotak jaitsi daitezke zerbitzuari kalitatean ezer kendu barik.
- Lanbide Hezkuntzan badago plan bat eta lan munduagaz ondo txertatuta dago baina euskalduntze arloa indartu behar da.
- Kalitate legearen inguruko eztabaida. Gobernu berria martxan hasten denean eztabaida hau zabaldu behar da, bertan eskola publikoaren eragileak daudela. Lege berria behar da ikastetxeei garantiza emanaz, kontzertazio eta sareei buruz erabakiak hartuz.
- Euskalduntzea, gehiago eta gutxiengoari buruz hitz egin barik. Ereduak eta irakasleen euskalduntzearek buruz batzutan erabaki gogorrak hartu dira. Ereduen inguruko datuak kezkarriak dira ( Ingelesarako First mailaren pare egin diren frogak demostratzen duten bezala). Euskalduntzea ez da nahikoa.
- Zer ulertzen dugun eleaniztasun bezala.
- "Bulling" arazoa; azken boladatan sortutako egoera kezkarriak
- Curriculuma. Orain arte urratsak eman dira eta egindakoa akatsak izango ditu baina aurrera egiteko balio du.
- Etorkinak: hizkuntzen inguruko ondorioak eta "ghettizazio" arriskua.

### **Mikel Agirregabiria - EAJ-PNV**

La educación debiera ser un espacio de encuentro donde las posiciones partidistas puedan ser superadas.

La educación se hace entre el alumno, padres/madres, profesores etc. no en el Parlamento.

Ninguna política educativa puede resolver todos los retos pero pueden ayudar.

(Recomienda analizar el "liburu zuria" del PNV - [www.hezkuntza.com](http://www.hezkuntza.com))

El PNV ha hecho una reflexión sobre el campo de la educación. Internamente las diferencias sobre el tema se analizaron en la ponencia educativa de 2002, en dicha ponencia se superó el debate interno y tienen también otros documentos sobre educación que se refieren a Lanbide Hezkuntza y Universidad.

El esquema de la ponencia es el siguiente:

El sistema educativo vasco ha hecho un esfuerzo pero se puede superar analizando los siguientes puntos:

- Euskaldunización
- Fracaso escolar al finalizar la Educación Secundaria obligatoria, tomando como referencia los resultados de test como el PISA TIMSS etc
- Análisis de la trayectoria del sistema educativo teniendo en cuenta que la natalidad descendió entre los años 1975 - 90 un 40%, la extensión del sistema a un alumnado muy joven y el desarrollo de la LOGSE con la extensión de la escolaridad obligatoria hasta los 16 años.
- Plantear los elementos clave:
  - Familias: Corresponde a los padres el deber, el derecho y la última responsabilidad de la educación de sus hijos e hijas. Los educadores no son, sino colaboradores profesionales que asumen la tarea instructiva y educadora durante los extensos períodos de formación que requiere la preparación contemporánea. Por ello, los recursos y metodologías que permitan a los padres y madres, o tutores, controlar y seguir el proceso de crecimiento, maduración y progreso de sus hijos e hijas, deberán ser especialmente promovidos en todas las etapas que conformen el sistema educativo.
  - Profesorado: Defensa activa del protagonismo social del profesorado, de la libertad de cátedra, avance en las competencias lingüísticas promoción profesional y estabilidad de plantillas tanto en equipos docentes como directivos.
  - Alumnos: La educación contemporánea debe cambiar tanto la estructura de las escuelas como el paradigma de la enseñanza, y otorgar la primacía real al protagonismo del alumnado, orientando todo el proceso educativo, hacia cómo aprender mejor porque enseñar no es sino facilitar el descubrimiento, la transmisión.
- Para afrontar el futuro se proponen seis vectores de cambio:
  - Educación en Valores
  - Educación Plurilingüe
  - Educación Intercultural e Identidad Europea
  - Educación digital en la Sociedad de la Información
  - Progreso y competitividad. Aprendizaje de personas adultas a lo largo de la vida
  - Educación de calidad y equidad partiendo del alumnado y las familias
- Políticas y estrategias para implementar esta transformación, con propuestas concretas para reducir a la  $\frac{1}{4}$  parte el fracaso escolar:
  - Currículo propio próximo y modernizado.
  - Medidas de evaluación modernas
  - Reorganización escolar a todas las escalas. Propuestas en temas polémicos, reorganización de presupuestos...
  - Avanzar hacia la negociación urgente de un nuevo "Acuerdo Educativo". Este acuerdo es necesario para poder avanzar en todos los temas.

Galderak:

*Barneko Producto Gordina. Azken urtekoak guretzat ez dira onak izan, buelta emateko asmorik ? Balizko inkrementoak nondik aterako dituzte? Kontzertazioak zeren baitan ematen dira eta zeren baitan eman beharko lirateke?*

*Sareen arteko "oreka" nola ulertzen duzue? Sare batek subsidiarioa izan behar du ?*

*0-3 tartearen oraina eta etorkizuna nola ikusten duzue? Zer egin sare publikoa indartzeko? Diseinatutako eredia ona bada, zergatik ez behartu kontzertatuei holan egitera?*

*Zuzendaritzaren arazoa konpontzeko zein urrats emango zenituzkete?*

*PISA, TIMSS emaitzei buruzko balorazioa*

*Hizkuntza erduei buruzko iritzia.*

*Legebiltzarrean onartu zen "Consejo Social de la Escuela Pública"z zein iritzi?*

**Xabier S:**

Euskal Herrian zer nolako publikotasuna nahi dugun definitu behar dugu. Egia da sare publikoa desbalorizatuta dagoela eta irtenbide zehatzak aurkitu behar direla. Ez da ahaztu behar badaukagula sare pribatua eta ikastolak bokazio publikoarekin sortuak; bokazio hori dutenei hasi beharko ginateke lekua uzten eta baldintzak betetzen dituztenean finantziazio osoa eman.

Publikoak orain dituen arazo larriei irtenbide bilatzea beharrezkoa ikusten du.

Zuzendaritzaren arloan Administrazioetik jarraipena falta da.

Hizkuntza erduen gaia larria da. Argüí eta garbi dago oraingo ereduak desfasetuta daudela eta ez dutela helburua betetzen. Euskalduntzea bermatu behar da eta egoera berriei egokitu beharrean gaude, etorkinak etab. Murgiltze planak behar dira, irakasle guztiak euskalduntzea eta gurasoen laguntza.

**Eli Z:**

Hizkuntza erduei buruz hezkuntza arloko eragileen arteko eztabaida sortu behar da. Etorkinen kasuan murgiltze sistema diseinatu, Kataluñakoa baliogarria izan daiteke. Hezkuntza komunitate osora zabaldu behar da eztabaida hori eta lehenengo puntua zera izango da, erduen sistemak porrot egin duela onartzea.

Finantziarioaren puntuan esan behar da ikastolei apoioa emandietela egotzi zaie; euskal publikotasunaz hitz egin behar da, haientzako hori zer den. Ikastetxe bakoitzak eskubide eta betebeharrak batzuk bete behar ditu, euskalduntzea, euskal curriculum garatu... Ezaugarriak betetzen dituztenak finantziatzea ondo ikusten dute.

**Martin A:**

Sareen orekari buruz uste du hau ez dela herri normalizatua; herri normalizatuan zuzenean publikoaren alde eta pribatuaren kontra joko genuke baina hemen ezin da, Administrazioak publikoa indartu baina beste ideologiakoak ezin ditu zapaldu.

Sare publikoa aukeratzen dutenak 3tik 2 dira baina estigma batzuk daude, planteamentua aldatu behar da, hezkuntzari diru gehiago ematea, errekurtsio kopurua handitu behar da. Horrek publikoaren estigma asko ezabatuko luke. Eskola publikoak errekurtsio horiek erabiltzeko duen margenaz eztabaidatu behar da.

0-3 zikloari buruz esan behar da Haurreskolak ez daukala eredu ekonomizista. Errekurtsio hori gizarteak erabil dezan eduki behar da. Errekurtsio publikoa.

Diseinatu zuten ereduaren kontra sektore asko azaldu ziren, onartzen dugu kontzertatuek tranpa egin dutela baina hainbat akats zuzendu dira

"Consejo social" dela eta ez daude kontra baina lehenengo errekurtsioen debatea ezinbestekoa da.

**Mikel A:**

Ojalá hubiera una forma transparente de saber el gasto público. Aquí el gasto en Educación es superior a la media de los países de la OCDE.

El horizonte es llegar al 7 y el 9  $\frac{1}{2}$  % del PIB. Desde el PNV entienden que el Sistema Educativo debe estar orientado por la demanda , no por la oferta.

El tema no es que una red sea subsidiaria de la otra, donde las familias puedan optar y siempre haya una oferta pública. En la medida de lo posible que las familias que están dispuestas a colaborar lo hagan, que el efecto compensatorio se realice en la escuela, que un alumno de magreb con más necesidades tenga un puesto escolar mejor.

No tenemos una ley que nos regule a todos, una Ley Vasca de Educación acompañada de una ley de financiación.

Creemos en un servicio público de educación compensador de diferencias, que también se subsanen las diferencias de los trabajadores de la red concertada y si no hay una "Hezkidetza" no se superarán.

¿Cómo sacar el dinero del PIB? Se habla de todo el tramo, incluido lo no obligatorio y se puede plantear la posibilidad de préstamos que luego se devuelvan, también se necesita más aportación pública pero no negar la colaboración del entorno social, las familias... buscar una apuesta de toda la sociedad , que crea que aportar en educación es una buena inversión, no significa esto que se vaya a hacer del 4% al 6% de inversión pública.

Se necesita optimizar medios, por ejemplo los alumnos actuando como tutores de alumnos menores y que sea la comunidad educativa la que decida con debates etc.

La escuela pública no tiene un modelo organizativo. Es necesario acabar con la interinidad de los profesores.

Con respecto al PISA se deben adoptar medidas de choque, nuestra posición en matemáticas es por encima de la media pero en formación científica un fracaso absoluto.

El Consejo Social sí, pero tenemos un Consejo Escolar de Euskadi poco aprovechado. La escuela pública es la que más debe levantar la voz porque si no lo más fácil es la concertación. Acercar la administración de recursos humanos y económicos para competir como red, que es la única que no existe.

## 4. TALDETAN LANDUTAKO GAIAK

### AUTONOMIA -1

#### *Ekonomi autonomia:*

- Arlo honetan autonomia gehiago eskatzen da; batez ere erosketak egiteko orduan, ikastetxeek lortzen dituzten prezioak hobeak direlako eta gainera bakoitzaren beharrei erantzun egokiagoa ematen zaielako.
- Ondo ikusten da obra txikien kudeaketa egitea baina obra handitan honako eskaerak egiten dira:
  - Eskoletan irakasle eta gurasoen artean osatutako batzordea eratzea obraren jarraipena egiteko.
  - Ikastetxearen iritzia eta planteatzen diren beharrak kontuan artesa.
  - Protokolo bat egitea obrarekin jarraitu beharreko pausoak ezagutzeko.
  - Obrak noiz diren txiki edo handi zehaztea, bakoitzen ezaugarriak definituz.
- Administrazioetik kanpoko diru iturriak edukitzea ez da egokia ikusten, eskolen arteko lehia ez bultzatzeko.

#### *Antolaketarako autonomia:*

- Puntu honetan autonomia handitzeko beharra ere ikusten da.; praktikan ikasleen taldekatze sistema desberdinak eta beste antolakuntza bereziak egiten dira baina Administrazioaren aldetik iniziatibak moztzen dira, konfiantza falta nabaria igertzen da.
- Zerbitzuen arloko autonomiak zama handia jartzen du Zuzendaritza Taldean baina zerbitzu hobeak eskeini daitezke. Puntu honetan oso garrantzitsuak dira begiraleak, jantokietan, autobusetan eta. Eta kolektibo honek prestakuntza berezia behar duela ikusten da. Era berean, dauzkaten lan baldintza txarrak eragozpen bat dela uste dugu.

### AUTONOMIA -2

Taldearen iritzian autonomia oso eremu zabala da, eta eskola publikoaren "ekitate" zaindu behar da.

Zenbait arlotan beldurra azaltzen da autonomia eskatzerakoan eta muga baten beharra ikusten da baina era berean bideak arakatzeko beldurrik ez izateko mezua ere bidaltzen da taldearen partaide batzuegandik.

Proiektuak hartzen dira abiapuntu bezala autonomia eskatzeko eta horien ebaluazioa ezinbestekoa azaltzen da.

Oztoporik handienak baliabidea ekonomikoak eta denbora gehiagoren beharra dira.

#### **Ekonomi autonomia**

- Produktuak homologatu behar dira baina hornitzaileak ez
- Espazioak arautzen dituen dekretu berri baten beharra dago.

### **Antolaketarako autonomia**

- Hezkuntza komunitatearen eskubideak eta eskubide pertsonalak uztartu behar dira eta hemen sindikatuen lana oso garrantzitsua da.
- Dauden esperientziak kontuan hartuz ikastetxeak zerbitzuak kudeatzen baditu, askoz hobeak dira baina honek eskatzen du administraziorako denbora gehiago; aurrezten den dirua eskolan geratzea proposatzene da.

### **Langileen kudeaketarako autonomia**

- Proiektuak behar bezala garatzeko irakasleen egonkortasuna denbora batez ziurtatzeko posibilitatea eskatzen da. Puntu honetan eztabaida luzea egin da eta irakasleak kontratatzeke posibilitateak ekar ditzakeen onurak aipatu dira, partaide batzuen aldetik proposamen hau eginez:
  - Ikastetxeak (Z. Taldeak edo B. Iraunkorrak) bi edo hiru irakasle kontratatzeke aukera edukitzea

Beste hainbat partaiden aldetik ez da kontratazioaren posibilitatea ondo ikusi eta arlo honetan autonomia gehitzeko puntu horretara heldu barik, tarteko bideak planteatu dira:

- Ordezkapenak eskatzen direnean Z. Taldekoek Administrazioaren aurrean fidagarritasun osoa edukitzea.
- Proiektuetan parte hartzen duen jendeak hala eskatzen badu, bertan mantentzeko posibilitatea edukitzea

Langileen alorrean gaixo kronikoen kasua azaldu da eta holako kasuetan tratamendu berezia eskatzen da.

Gaur egun Unibertsitate mailan departamentuek langile-boltsa baten barruan aukeratzeko gaitasuna daukatela aipatu da eta begi onez ikusten da formula bat aurkitzea Lehen eta Haur Hezkuntzako ikastetxeek esparru honetan beren autonomia heda dezaten ere.

Momentu honetan eskola txikiek ebaluazioaren ondoren klaustroaren parte bat (% 50 baino gutxiago) mantentzeko posibilitatea daukate.

Eztabaidaren barruan langileen arloan autonomia mailaren bat edukitzeko dugun beharrari erantzuna emateko ondoko proposamenak egin dira:

- Adjudikazioetan bertan eskola bakoitzeko proiektuak agertzea, lanpostua jakinaren gainean hartzeko.
- Autonomia edukitzea eskubidea da eta ez da sari bezala erabili behar.
- Ebaluazio sistema ona eratu eta zabaldu behar da autonomiari lotuta
- Langile ez-irakasleak ikastetxearen beharren arabera perfila edukitzea ere eta ez oraingo moduan zerrenda bakar batetan kokatuta.

### **Pedagogi autonomia**

- Onartutako proiektuak garatzeko baliabideak izango ditugula jakitea beharrezkoa ikusten da.

- Aberasgarria ikusten da Unibertsitate eta Ikastetxeen arteko elkarlana eta horretarako hitzarmenak egiteko posibilitatea ikusten da taldean egondako Unibertsitateko irakasleen ustez.
- Magisteritzako ikasleak borondatezko praktikak egiteko posibilitatea daukate proiektu berezietan lan egiteko.

|                  |           |                     |    |             |    |          |    |                      |   |
|------------------|-----------|---------------------|----|-------------|----|----------|----|----------------------|---|
| PARTEHARTZAILEAK | Lan mota  | Zuzendaritza Taldea | 19 | Sindikatuak | 1  | Besteak  | 7  | Ez da identifikatzen | 1 |
|                  | Lurraldea | Araba               | 1  | Bizkaia     | 11 | Gipuzkoa | 15 | Ez da identifikatzen | 1 |

|   | <i>Maila erreala</i> | <i>Eskuduntza beharra</i> | <i>Azken legealdiaren hobekuntza</i> | <i>Autonomia eskuduntzari mugak jarri beharra</i> | <i>Suposatzen duen eskola barruko aldaketa</i> | <i>Administrazioan suposatzen duen aldaketa</i> |
|---|----------------------|---------------------------|--------------------------------------|---|--|---|
| <b>1. EKONOMI AUTONOMIA</b>                           | <b>1,9</b>           | <b>3,7</b>                | <b>1,4</b>                           | <b>2,7</b>  | <b>3,4</b>                                     | <b>3,4</b>                                      |
| 1.1. Erosketak  | 2,6                  | 4,5                       | 1,4                                  | 2,2   | 3,0  | 3,1   |
| 1.2. Obrak  | 1,4                  | 4,0                       | 1,5                                  | 2,9   | 3,5  | 3,7   |
| 1.3. Diru iturri berriak ( Administrazioetik kanpo)   | 1,7                  | 2,5                       | 1,4                                  | 3,0   | 3,7  | 3,4   |
| <b>2. ANTOLAKETARAKO AUTONOMIA</b>                    | <b>2,5</b>           | <b>4,5</b>                | <b>1,6</b>                           | <b>2,3</b>  | <b>5,5</b>                                     | <b>3,0</b>                                      |
| 2.1. Ikasleen taldekatze arloan                       | 2,7                  | 4,6                       | 1,6                                  | 2,3   | 7,2  | 2,4   |
| 2.2. Zerbitzuen antolaketaren arloan                  | 2,2                  | 4,3                       | 1,6                                  | 2,3   | 3,7  | 3,5   |
| <b>3. LANGILEEN KUDEAKETARAKO AUTONOMIA</b>           | <b>1,6</b>           | <b>4,2</b>                | <b>1,3</b>                           | <b>2,4</b>  | <b>3,7</b>                                     | <b>3,6</b>                                      |
| 3.1. Ordezkapen kudeaketaren arloa                    | 1,3                  | 4,2                       | 1,4                                  | 2,7   | 3,9  | 3,8   |
| 3.2. Irakasleen perfila eta habilitazioa              | 1,6                  | 4,2                       | 1,3                                  | 2,2   | 3,5  | 3,6   |
| 3.3. Pertsolan ez irakasleen perfila eta habilitazioa | 1,4                  | 4,2                       | 1,2                                  | 2,3   | 3,6  | 3,5   |
| 3.4. Irakasleen egonkortasuna                         | 1,2                  | 4,0                       | 1,4                                  | 2,5   | 4,0  | 3,8   |
| 3.5. Irakasleen antolaketa                            | 2,4                  | 4,4                       | 1,4                                  | 2,1   | 3,7  | 3,5   |
| <b>4. PEDAGOGI AUTONOMIA</b>                          | <b>2,5</b>           | <b>4,3</b>                | <b>1,7</b>                           | <b>2,2</b>  | <b>3,3</b>                                     | <b>3,0</b>                                      |
| 4.1. Proiektuak aurkezteko autonomia                  | 3,1                  | 4,4                       | 1,7                                  | 2,0   | 3,2  | 2,6   |
| 4.2. Proiektuak garatzeko baliabide espezifikoak      | 1,9                  | 4,2                       | 1,7                                  | 2,3   | 3,4  | 3,3   |
| <b>Orokorrean: LAU ATALAK (1-5eko eskalan)</b>        | <b>2,13</b>          | <b>4,15</b>               | <b>1,52</b>                          | <b>2,38</b>                                       | <b>3,97</b>                                    | <b>3,24</b>                                     |
| <i>Orokorrean: LAU ATALAK (0-10eko eskalan)</i>       | <i>2,8</i>           | <i>7,9</i>                | <i>1,3</i>                           | <i>3,5</i>  | <i>7,4</i>                                     | <i>5,6</i>                                      |

## **AZPIEGITURA: Mantenimendu eta obrak**

### ❖ *Dekretuaren azterketa*

Haur eta Lehen Hezkuntzako eraikuntzak egiteko edo berriztatzeke gutxieneko baldintzak zehazten dituzten bi dekretuak aztertu dira (BOEko 1004/1991 eta 1537/2003 errege dekretuak)

Taldean sortutako proposamenak:

Dekretuak 1991an eta 2003an atera ziren eta nahiz eta 12 urte pasa bi dekretuen artean aldaketa gutxi antzematen da.

Hemengo ezaugarriak kontuan izanda, hau da. klima, Hezkuntza Proiektuak, hemen egiten diren esperientziak e.a Hezkuntza Sailak gutxieneko baldintzak arautzen duen dekretu bat atera beharko luke. Oraingoa Madrilen ateratakoa da.

Ondoren aipatuko ditugu ikusten ditugun hutsuneak:

- Tutoretzak eta bikoizketarako gela nahiko ez dago, eta ezartzen dituzten neurriak oso eskasak dira.
- Aterpea ez da inon ere kontenplatu, eta bizi garen tokian bizi izanda beharrezkoa ikusten da.
- Liburutegiaren tamaina , dekretuaren arabera, oso txikia da. Handiago izatea eskatzen da.
- Gimnasioa edo heziketa fisikorako espazioa kontenplatuaren eskolako lerro kopurua ez da kontuan izaten eta horrela izan dadin eskatzen da.
- Lehen Hezkuntzan gimnasioa egon beharko litzateke eta ez " toki estali" bat.
- Zuzendaritzarako bulegoan ez da neurririk ezartzen, baina gure ustez tamaina egoki eta zabal bat izan beharko luke, hor egiten den lana kontuan izaten badugu: zuzendaritza taldeko bilerak, gurasoekin egiten diren bilerak administrazioko beste batzuekin egiten direnak, ikuskaria, Udaletako jendea, aurrematrikula garaian gurasoekin bildu, e-a.
- Ingelesa gela ez da agertzen. Eskolatan bitartekoak eta errekurtsioak baditugu arlo hau aurrera eramateko, baina ez dago espazio fisikorik.
- Material biltegia
- Altzarien biltegia
- Belarguneak

### ❖ *Obrak*

Protokoloa- Obra bat burutu baino lehen ondorengo pausuak kontuan izatea eskatzen dugu: ikastetxeekin kontaktzea, eskolaren iritziak bere garrantzia izatea.

Jakin beharko genuke administrazioetako obra plana, bai Udalena eta ba Hezkuntza sailarena. Modu horretan jakingo genuke ikastetxe bakoitzari noiz dagokion obra bat aurrera eramatea.

Hezkuntza sailak garbi adierazi behar du zein den prozedura, epeak, gestioak, e.a. ezta ez du gelditu behar zuzendaritzaren "pelmadaren" baitan.

Hau da Hezkuntza Sailari eskatzen zaiona:

- Garbi adierazi behar du protokoloa eta prozedurak zeintzuk diren.
- Informazioa argi azaldu behar dute.

- Inplikaturak dauden guztiekin ( udala, eskola) kontatzea proiektuen onarpenerako.
- Zuzendarien oniritzia kontuan hartu beharreko zerbait litzateke obra bat ontzat eta bukatutzat emateko.

Ikuskaritza zerbitzu bat beharko litzateke obrak egiteko unean eta obrak bukatu ondorenerako.

#### ❖ *Mantenimendua*

- Teorian argi dago ikastetxeen mantenimendua nori dagokion, baina praktikan zailtasunak daude. Batzuentzat mantenimendua dena beste batzuentzat berriz obra da.
- Hezkuntza Sailak presioa egin beharko luke zenbait udaletan ikastetxeen mantenimendua egokia izan dadin. Izan ere, ikastetxe publiko askoren egoera tamalgarria da eta eskaintzen duen irudi penagarria. Eta mantenimendua egokia ez izateagatik obra asko egin behar dira.
- Atezainen figura eta perfila ez dago erabat definitua eskola guztietan. Zenbait eskolek atezaina dute, beste batzuek mantenimendurako arduraduna eta badaude zenbait ikastetxe non ez duten inor lan hauetarako.

Udalei eskatzen diegu definitzeko pertsona horien perfila eta bere betebeharrak zeintzuk diren. Eta orokorrean ikastetxe gehienak mantenimendurako pertsona bat behar dute, eta ez administrazioetan dagoen atezain moduko bat.

#### ❖ *Kudeaketa ekonomikoa*

Gaur egun daukagun sistema neurri handi baten egokia ikusten da baina badaude hobetu beharreko puntuak:

- Dagoen homologazio sistemak autonomia mugatzen du. Hornitzaileak homologatu barik, produktuak homologatzea proposatzen da.
- Administrazioak moduluak kalkulatzeko erabiltzen dituen parametroak ezagutu behar ditugu. Jantokiko partidatan ere.
- Kudeaketan konplexotasuna ikusten da:
  - Eskolan ikasturtea da oinarritzko esparrua baina kontuak urte naturalaren arabera egin behar dira; honek konplexotasuna areagotzen du.
  - EGA-AKA gaixotzen bada, gehienetan ez dago inor lan hori egiteko prestatuta. Lan honetarako formakuntza zabaltzea proposatzen da.
- Ikastetxe askotan kartilla berezia eramaten da (Guraso Elkartekoekin edo) hainbat kasutan kudeaketa errezteko eta lasaiago egoteko.
- Eraikuntzen arabera modulo fijoak erabiltzea proposatzen da; ez da berdina eraikuntza batetan edo bitan (edo hitutan) egotea.
- Haur Hezkuntzak tratamendu berezia behar duela uste dugu, adibidez Hezkuntza Bereziko moduluak.
- Behar berriak sortu dira baina dotaziotan IPC bakarri hartzen da kontuan. Gaur egun eskoletan erantzuna eman behar zaio hainbat berrikuntzari: musika, Ingles, liburutegia, matrikula garaiko propaganda, komunikazioak, jantokia...

Ikastetxeetara heltzen den dirua zelan gastatu erabakitzeko ez dago iritzi bakarra eta lekuan lekuko sistema desberdinak aipatu dira. Ekonomi Batzordea ikastetxe gehienetan esistitu eta funtzionatzen duen batzordea da.

## 5. HITZALDIA - Jaume Carbonell

XVIII. Topaketean itxiera ekitaldia "Eskola Publikoaren beharra eta etorkizuna" izenburu zuen Jaume Carbonell jaunaren hitzaldia izan zen.

*Jaume Carbonell "Cuadernos de pedagogía" aldizkariaren zuzendaria eta Vic-eko Unibertsitateko irakasle eta ikerlaria da.*

Es necesario hacer un poco de historia y recordar que el vacío legal franquista dio mucho juego para llevar adelante la reforma. La necesaria burocratización ha puesto trabas; no se pueden olvidar los pactos de la Moncloa, el 82 y el 89 no son lo mismo para impulsar la escuela pública.

El viraje no se da sólo con el PP y la LOCE sino que ya empezó a finales de los 80 con los socialistas. Realizaremos la reflexión en torno a 10 puntos:

### **1. Hacia dónde va la oferta y la demanda**

La Educación Secundaria ha aumentado un 10% en la privada mientras que en Infantil y Primaria es la escuela pública la que tiene el aumento de 10%. El trasvase se realiza en Secundaria donde en idea de muchas personas es "cuando empieza lo que hay que aprender". Hay una percepción de que la privada va mejor, no hay conflictos, etc. (puesto que se esconden). Se transmite una imagen social, se remarca los resultados del informe PISA que se deben a la selección de alumnos.

La realidad es que hay escuelas buenas en pública y en privada y también al revés. En un estudio que se realizó a nivel estatal se comprobó que no había diferencia entre pública/privada sino dentro de cada colectivo.

El gran reto de hoy es las construcciones escolares. Hay que destacar que a partir del año 2000 se registra un aumento de la natalidad al que se le añade la inmigración.

Se construyeron macrocentros pero a través de estudios realizados se demuestra que las escuelas pequeñas dan muchos más indicadores de calidad, es mucho más importante que las escuelas sean pequeñas, esto es una tendencia innovadora. Se observa una reprivatización del suelo público hacia los centros concertados.

### **2. Escuelas públicas y privadas concertadas. Es posible la aproximación y convergencia en un servicio unificado.**

Este es el debate del momento. Se está definiendo una carta de deberes y derechos y la financiación en función del grado de servicio social que el centro aporte. También se habla mucho sobre las cooperativas que puede ser el debate del futuro.

### **3. Nuevas y viejas desigualdades**

Ha aumentado el derecho a la educación y también la diferencia de oportunidades, que no queda eliminada con la escolarización; Hay factores como que cada vez se necesitan más competencias específicas, informática... Según las encuestas en España sólo hay internet en un 33% de los hogares y además no se puede dejar de analizar el uso que se hace de ello. Por otra parte están también las actividades extraescolares, muy importantes en este momento y a las que los emigrantes por ejemplo no asisten.

Un dato importantísimo es el peso del entorno familiar, cada vez es más importante el consumo cultural que hay en casa y las expectativas que se tienen en la familia. La escolarización es necesaria pero no suficiente para eliminar las diferencias.

A más educación no necesariamente los países son más ricos y las personas tienen más posibilidades.

Un reto importante en este momento es la formación de las personas adultas.

#### ***4. Pluralismo social o ghetto escolar.***

La Escuela pública debe ser plural y de hecho garantiza la pluralidad, la privada garantiza distintos modelos. ¿Hay alternativa al ghetto escolar? ¿Es mejor una escuela cercana, convertida en ghetto o trasladarse para romper esa situación? Estas son preguntas que surgen cada vez que se analiza el tema puesto que es una realidad que las personas con menos poder adquisitivo se ven obligadas a vivir en zonas determinadas.

A este respecto debe haber políticas educativas que lleven a una respuesta satisfactoria.

#### ***5. Pluralismo ideológico o pluralismo de modelos. El no lugar de la religión en la escuela.***

Debemos utilizar lo que une y desechar lo que desune. A pesar de que no se le ve mucha salida por el momento hay que derogar los acuerdos con el Vaticano.

#### ***6. Autonomía de centros, ¿hasta dónde? Acerca de sus potencialidades y debilidades***

Es necesario que no exista la uniformación. La autonomía es muy importante para los Proyectos. La Administración quiere controlar. El peligro de la autonomía es que el estado se limpie las manos, cosa que ya ha ocurrido en algunos países; en ese caso la autonomía se convierte en un regalo envenenado porque las administraciones dicen: "que se busquen la vida".

A la autonomía hay que ponerle límites respecto a los mínimos para que todos los centros tengan calidad y los ciudadanos lleven a sus hijos a un centro público de calidad con orgullo.

#### ***7. Al valor de la educación hay que darle valor económico sobre las nuevas necesidades y sus prioridades.***

La necesidad en educación irá creciendo pero los estados no aumentan las partidas. Es fundamental invertir bien. Es verdad que actualmente vivimos más pero esto hace que se creen muchas más necesidades en pensiones, sanidad etc.

El discurso de las campañas políticas es la "seguridad" (Bus, Blair...) pero lo necesario es el debate público sobre este tema: ¿En qué hay que invertir?

#### ***8. ¿De quién es la escuela pública? Tres modelos a debate: el estatal, el corporativo y el comunitario.***

El modelo estatal es más uniforme, centralista, intervencionista y burocrático. La escuela no es del estado.

Tampoco debe servir el modelo corporativo; como expone Mariano Fernández Enguita en su artículo ¿Es pública la escuela pública? Hay una solidaridad corporativista perversa, con complicidades, tendencia a esconder, no evaluación... Ni el estado ni los sindicatos han puesto mucho interés en este punto.

No es lo mismo los intereses de la escuela pública en general y los intereses de la escuela pública mientras estén mis hijos.

Habría que recuperar la escuela pública comunitaria con Consejos Territoriales donde se planifique y negocie con el gobierno.

***9. El largo camino de la escolarización pública a la educación pública durante toda la vida.***

Nos encontramos en la necesidad de hacer frente a retos del tipo de organizar actividades extraescolares gratuitas dentro del centro.

***10. De las políticas escolares a las políticas educativas y sociales públicas. O cómo escapar de la soledad de la escuela.***

Desde la soledad de la escuela no se puede plantear la consecución de una sociedad justa e igualitaria si no se consigue trabajar con otros agentes.

## 6. TOPAKETEN EBALUAZIOA

- *Mahainguruaren balorazioa*

Balorazioa ikuspuntu desberdinetatik egin da:

- Partehartzea: 50 pertsona inguru egon ginen eta egin diren beste antzeko ekintzetara joan den jendea ikusita, nahiko ondo iruditzen zaigu.
- Antolakuntza: Denon iritzian oso ona arlo guztietan, denbora, prestatutako galderak, prentsa oharra eta azpiegitura.
- Partiduen ordezkariak emandako mezuren edukia: Arlo hau, orokorrean, oso pobrea izan zela uste dugu.
- Akatsak: Eztabaidaren aberastasuna murriztuta ikusi genuen partidu batzuen faltagatik.
- Etorkizunerako ekintzak: Partidu Politikoetako ordezkariak Eskola Publikoaren berri ugariago izan behar dutela iruditzen zaigu eta horretarako etorkizunean haiekin bilera gehiago egitea kontuan hartzeko ideia dela uste dugu.

- *Lan talde saoiaren ebaluazioa:*

| <i>Ebaluazio atala</i>                                 | <i>XVIII. Topak.</i> | <i>XVII. Topak.</i> | <i>XVI. Top.</i> | <i>XV. Top</i> | <i>XIV. Top</i> | <i>XIII. Top</i> |
|--|----------------------|---------------------|------------------|----------------|-----------------|------------------|
| <b>1. Diseinua</b>                                     |                      | <b>4,2</b>          | <b>4,5</b>       | <b>4,2</b>     | <b>4,4</b>      | <b>4,5</b>       |
| Denboraren antolaketa                                  | 4,2                  | 4                   | 4,5              | 4,1            | 4,5             | 4,4              |
| Gaien aukeraketa                                       | 4,4                  | 4,2                 | 4,7              | 4,2            | 4,0             | 4,7              |
| Talde txikien lan-antolaketa                           | 4,2                  | 4,5                 | 4,3              | 4,3            | 4,7             | 4,3              |
| <b>2. Azpiegitura</b>                                  | <b>4,2</b>           | <b>4,6</b>          | <b>4,5</b>       | <b>3,6</b>     | <b>4,5</b>      | <b>4</b>         |
| Gelen funtzionalitatea eta tresneria                   | 4,1                  | 4,5                 | 4,6              | 3,8            | 4,3             | 3,9              |
| Bazkaria eta hamaiketakoa                              | 4                    | 4,7                 | 4,4              | 3,3            | 4,7             | 4,2              |
| <b>3. Antolakuntza</b>                                 | <b>4,2</b>           | <b>4,3</b>          | <b>4,5</b>       | <b>4,3</b>     | <b>4,3</b>      | <b>4,4</b>       |
| Aurreko komunikazioa                                   | 4,2                  | 4                   | 4,6              | 4,2            | 4,1             | 4,3              |
| Oinarrizko dokumentazioa                               | 4,2                  | 4,6                 | 4,5              | 4,1            | 4,0             | 4,3              |
| Moderatzaileen lana talde handian eta txikian          | 4,2                  | 4,4                 | 4,4              | 4,5            | 4,4             | 4,5              |
| Topaketaren egiturak eskaini duen partehartzeko aukera | 4,4                  | 4,3                 | 4,4              | 4,3            | 4,6             | 4,5              |
| <b>4. Partaidetza</b>                                  | <b>3,7</b>           | <b>4</b>            | <b>4,1</b>       | <b>4</b>       | <b>3,7</b>      | <b>4,3</b>       |
| ❖ Partaideen kopurua                                   | 3,8                  | 3,3                 | 3,9              | 3,8            | 2,7             | 4,5              |
| ❖ Talde txiki eta handiko partehartze-ugaritasuna      | 3,7                  | 4,1                 | 3,9              | 3,9            | 4,0             | 4,0              |
| ❖ Langirotik aparteko harremanak                       | 3,8                  | 4,5                 | 4,4              | 4,2            | 4,5             | 4,3              |
| <b>5. Emaitzak</b>                                     | <b>3,9</b>           | <b>3,8</b>          | <b>4</b>         | <b>3,9</b>     | <b>3,9</b>      | <b>3,8</b>       |
| • Informazio maila                                     | 4,2                  | 4,2                 | 4,2              | 4,2            | 4,3             | 4,1              |
| • Eztabaida, hausnarketa                               | 3,9                  | 4,2                 | 4,1              | 4,2            | 4,4             | 3,8              |
| • Lortutako ondorioen argitasuna                       | 4                    | 4                   | 3,9              | 4,1            | 3,9             | 3,8              |
| • Landutako gaiaren helburuak lortzeko espektatiba     | 3,6                  | 3                   | 3,6              | 3,2            | 3,0             | 3,3              |
| <b>PUNTUAZIO OROKORRA</b>                              | <b>4,1</b>           | <b>4,2</b>          | <b>4,3</b>       | <b>4</b>       | <b>4,1</b>      | <b>4,2</b>       |